

Aitziber L. Cortajarena Zientzia Zehatz, Fisiko eta Naturalen Errege Akademiako akademiko urgazlea

Zientzia Zehatz, Fisiko eta Naturalen Errege Akademiak berriki jakinarazi du [akademiko urgazle](#) izendatu duela Aitziber López Cortajarena, CIC biomaGUNEko zuzendari zientifikoa, Ikerbasque ikerketa-irakaslea eta [Nanoteknologia Biomolekularra](#) taldeko ikertzaile nagusia.

CIC biomaGUNE Biomaterialen Ikerketa Kooperatiboko Zentroak pozez hartu du izendapen berri hau; izan ere, izendapen honetaz gainera, zentroko beste bi ikertzaile nagusi ere badira RACeko akademiko: [Luis Liz Marzán](#) Ikerbasque irakaslea RACeko akademiko osoa da, eta [Maurizio Prato](#) Ikerbasque irakaslea eta AXA katedraduna, berriz, nazioarteko akademiko urgazlea da, Fisika eta Atalean.